

Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Sustraietatik hurbil, entzulea hunkituz

Petti da euskal kantagintzaren altxorretako bat. Sasoi batean isilik egon den arren, Lauaxetaren omenezko *Ehungarrenean bamaika* diskoan oilo ipurdia jarri zigun *Amayur gaztelu baltza* kantuarekin; eta *Hauxe* proiektuarekin herdoila kendu zuen gainetik. Bost urte eman ditu, baina itxaronaldiak merezi izan du. Rafa Ruedaren gidaritzapean beratarraren kantuak instrumentazio askorekin jantzi eta dotoretu dituzte, intentsitatea eta ñabardurak batuta. Pieza akustiko eta biluzietatik hasita, blues eta countryn murgildu, eta gai da Tom Waitzen pareko giroak sortzeko, edota gitarra altxata azeleragailua zapaltzeko. Bere bi alderdiak erakutsi ditu: Ameriketako sustraietara begira idazten dituen kantu lasai eta akustikoak, baita rockeroagoak ere. Oso gutxik dute abesterakoan Pettiren arima.



On
Petti

GAZTELUPEKO HOTSAK

Iraupena: 52'53"
14, 45 euro

PETTI

«Musika besteek entzuteko egiten dugu; bestela, etxean baino ez genuke joko»

Ekaitzaren ostean etortzen dira zure diskoak, baretasunean?

Bai, hala izan ohi da gehienetan. Hala ere, bost urteotan ia geldu egon naiz eta bazen ordua diskoa kaleratzeko. Gainera, lan honetako kantu gehienak aspaldi eginak nituen. Folkienak, lasaienak aukeratu ditut disko honetarako. Bestalde, badut asmoa gordeta ditudan beste kantu rockeroago batzuk etorkizunean nik ekoiztu eta kaleratzeko.

Zergatik da hain "ona" disko hau?

(Kar, kar, kar). Gehienbat abestiek instrumentazio aldetik garapen handia dutelako, eta musikariak ere oso onak direlako. Hala ere, bigarren diskoa da niri gehien gustatzen zaidana, nahiz eta askoz minimalistagoa izan.

"Hartzaile onak egiten du emaila ona, emanez eskertzen baitu hartu duena". Zer eman dizute zuri entzuleek?

Entzuleek aurrera egiteko gogoia eman didate. Norbaitek nire musika gustuko badu, asko pozten nau; eta aurrera egiten laguntzen dit. Musika besteek

entzuteko ere egiten dugu; bestela, etxean baino ez genuke joko.

"Erran gabeko hitzen mamuak barrutik ibil ez daitezen", konposatzeari ekiten diozu sarritan? 50 bat kantu omen dituzu gordeta... Zer da kantuak egitea, plazera, terapia, exorzismoa, beharra?

Niretzat kantak egitea gauza horien guztien nahasketa da. Egotea denbora luze samarra jo gabe; baina gorputzak eskatzen didanean jotzen dut.

Nor litzateke Petti ostalaritzan lan egin izan ez balu?

Bai, zalantzarik gabe. Ostalaritza gaua da batez ere, eta gauak hartzen duena eguzkiari kentzen dio. Hala ere, harakin, fruta saltzaile, hargin eta beste lanbideak ere izan ditut.

Lan honetan alde akustikoa eta elektrikoa erakutsi dituzu...

Bai. Honetan aurreko hiru diskoetan landutako estiloak nahastu nahi nituen. Erakutsi nahi izan diot jendearek zuzenean zer aurki dezakeen: kantu lasaiak eta rockeroagoak, biak dira Petti.

